## UDAL-BATZARRA 4/04

## UDAL-BATZARRAK, 2004ko Martxoaren 16ean EGINDAKO OHIZKANPOKO BILKURARI DAGOKION AKTA

**PARTAIDEAK:**

**ALKATEA:**
Fidel Azpiroz Arrillaga

**ZINEGOTZIAK:**
Jose Ignacio Otermin Garmendia
Kepa De la Iglesia Sánchez
Jesus Mª Arsuaga Lizaso
Mikel Zubillaga Galárraga
Mª Carmen Egurza Salaberria

**IDAZKARIA:**
Nekane AGIRRESAROBE ETXEBERRIA

ANOETAko Udaletxean, 2004ko martxoaren 16ean iluntzeko zazpi terdiak direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, Ohizkanpoko Bilkura egin asmoz Fidel Azpiroz Arrillaga alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik. Juan Jose Martin Zubelzu, Nieves Alarco Martinez eta Silvia Dos Santos Leite Zinegotziak ez dira etorri eta ez dute arrazoirik adierazi; idazkaria, Nekane Agirresarobe Etxeberria And.

### 1.- 2004KO URTARRILAREN 27AN, OTSAILAREN 5EAN ETA OTSAILAREN 17AN OSPATURIKO AKTEN ONESPENA.

Udalbatzak 2004ko urtarrilaren 27an eta otsailaren 5 eta 17an egindako bilkuren aktak irakurri eta aho batez onetsirik geratu dira.

Son leidas y aprobadas por unanimidad de los reunidos las actas de la sesiones celebradas con fecha 27 de enero, 5 y 17 de febrero de 2003.

### 2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA, 39TIK 83A, BIAK BARNE.

Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate Jaunak egindako ebazpenen berri eman du, alegia, 39tik 83ra, biak barne; korporakideek jakituen geratzen direlarik.

El Sr. Alcalde D. Fidel Azpiroz Arrillaga da cuenta de las resoluciones dictadas correspondiente a los números comprendidos entre el 39 al 83, ambos inclusive; dándose la Corporación por enterada.

## 3.- KUTXAREN GOBERNU-ORGANOAN PARTE HARTZEKO ORDEZKARIAREN IZENDAPENA.

Ikusirik, Eneko Olano Louvelli, Gipuzkoa Donostia Kutxako Hauteskunde-Batzordearen Idazkariak bidalitako idatzia, non adierazten den, egindako banaketa berriaren arabera, Udal hau kide den (Anoeta-Ibarra-Legorreta) Elkarteari Gipuzkoa eta Donostiako Kutxaren Batzar Nagusirako Kontseilari Orokor bat izendatzea dagokiola.

Ondoren, Alkate-Lehendakari Jaunak proposatu du, Patxi Xabier Iraola Aguirrezabala Legorretako alkate jauna, Gipuzkoa Donostia Kutxako Batzar Nagusirako Kontseilari Orokorra izan dadin, Udalbatzarrak 2004ko urtarrilaren 27an hartutako erabakiaren arabera sortu den elkartearen ordezkaritzapean.

Hua honela izanik, Patxi Xabier Iraola Aguirrezabala jauna izendatzea erabaki dute partaideek aho batez, Alkate Jaunak aurkezturiko proposamenari atxekirik.

Visto el escrito remitido por el Secretario de la Comisión Electoral D. Eneko Olano Louvelli, de Caja Gipuzkoa San Sebastian, en el que señala que de conformidad con la nueva distribución realizada sobre el número de Consejeros Generales en la Asamblea General de la Caja de Gipuzkoa San Sebastian, corresponde a la agrupación de la que este Ayuntamiento forma parte (Anota-Ibarra-Legorreta) la designación de un Consejero General.

A continuación, el Sr. Alcalde-Presidente propone la designación de D. Patxi Xabier Iraola Aguirrezabala, Alcalde de Legorreta, como Consejero General de Caja de Gipuzkoa San Sebastian, en representación de la agrupación creada según acuerdo de Pleno de este Ayuntamiento de fecha 27 de enero de 2004.

Ante ello, se acuerda por unanimidad de los reunidos, nombrar a D. Patxi Xabier Iraola Aguirrezabala, según propuesta formulada por el Sr. Alcalde.

## 4.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO KALITATERAKO DEPARTAMENDUAK UDALERRIKO ARMARRIAREN BEHIN-BETIKO ONESPENARI BURUZKO EBAZPENAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzak, Foru Administrazioaren Kalitaterako Departamentuko Foru Diputatuak 2004ko otsailaren 13an ondoren ebatzitakoaren berri izan du:

La Corporación se da por enterada de la resolución adoptada por el Diputado Foral del Departamento para la Calidad en la Administración Foral con fecha 13 de febrero de 2004 que dice como sigue:

*“.../...*
*Lehenengo.- Anoetako udalerriko armarritzat onartzea ondoren deskribatu eta, 1. eranskinan akromatikoki irudikatzen dena:*

*Udalerriko armarria.- Anoetako armarriak angeluzuzeneko itxura du, eta barruko eta goiko anguluak biribilduta dauzka. Armarriaren barrualdean ez dago inongo zatiketarik eta hor bertan agertzen dira hainbat altueratan banatuta ondoko irudi naturalak:*
*Kuku baten irudia (Cuculus canorus), ezkerretik eskuinera hegan egiten agertzen da, hegalak eta isats-hegatsa zabalduak (hegazti hauek hegan egitean hartzen duten jarrera arruntean), eta erdi-erdian denen buruzagitza. Kukua sable edo beltz (Pantone Procces Black C) kolorekoa da, eta zilarrezko (Pantone 429 C, aukerako Zilarrezko-Pantone 877 C) hondo batean agertzen da. Armarriaren erdian Burdin Aroko herrixka baten silueta idealizatua agertzen da, landarezko teilatua duten hiru etxebizitzaren gaineko irudi eskematizatuaren bidez errepresentatua eta erremate horzdun batekin kanpotik itxia, aipatu garaian herrixka hauek babeserako erabili ohi zituzten hesiak imitatu nahirik. Herrixka urre edo hori (Pantone 125 C, aukerako Urrezko-Pantone 871C) kolorekoa da eta zilarrezko hondoari kontrajartzen zaio kromatismoz.*
*Herrixka muino edo mendi baten gainean dago, eta bere punturik garaiena bat dator harmarriaren zilborrarekin; mendi-hegalak, berriz, poliki-poliki jaisten dira puntaren ezker-eskubiko ertzetarantz, erliebe biribulduxe eta suabe bat osatuz. Urdin (Pantone 285 C) eta zilar (Pantone 429 C) koloreak txandakatzen dituzten bost banda izurtu eta paralelok armarriaren puntu zeharkatzen dute. Elementu honek Oria ibaia errepresentatzen du eta mendiaren edo erliebe fisikoaren berde edo sinople (Pantone 363 C) koloreari gainjartzen zaio.*
*Armarriak ez du forrurik, ezta kanpoko apaingarririk ere.*
*Koloreak, arte grafikoetan egin ohi den kolore deskribapenaren taularen arabera (pantoneak) zehazten dira.*
*.../...”*

*“.../...*
*Primero.- Aprobar como escudo heráldico del municipio de Anoeta el que se describe a continuación, cuya reproducción acromática se incorpora como Anexo I:*
*Escudo municipal: El campo del escudo de Anoeta es de forma rectangular con sus ángulos inferior y superior redondeados. Al interior del campo no se produce división alguna y en el mismo se distribuyen organizadas en altura las sigueintes figuras naturales:*
*La figura de un cuco (Cuculus canorus), volando en sentido de izquierda a derecha, con las alas y la cola desplegadas en la característica posición del vuelo de estas aves, se dispone en el centro del jefe. El cuco es de color sable o negro (Pantone Procces Black C) sobre fondo plata. (Pantone 429 C, opcional Plata-Pantone 877 C).*

*En el centro del escudo se dispone la silueta idealizada de un poblado de la Edad del Hierro representada mediante la imagen esquematizada de tres viviendas con techumbre vegetal y un cierre exterior con un remate dentado, a modo de simulación de las cercas con las que estos poblados se protegían en dicha época. El poblado es color oro o amarillo (Pantone 125 C), opcional Oro-Pantone 871 C) contrastando cromáticamente con el fondo plata.*
*El poblado se sitúa sobre un promontorio o monte cuyo punto más elevado coincide con el ombligo del escudo y cuyas laderas desciende progresivamente hacia los cantones siniestro y diestro de la punta, formando un suave relieve redondeado. La punta del escudo es recorrida por cinco bandas onduladas y paralelas que alternan los colores azul (Pantone 285 C) y plata (Pantone 429 C). Este elemento representa el río Oria y se superpone al color verde o sinople (Pantone 363 C) del monte o relieve físico.*
*El escudo no presenta forro ni adornos exteriores.*
*La concreción de los colores, se realiza según tabla habitual de descripción de color en artes gráficas (pantones)*

*.../..”.*

## 5.- “EMAKUME NAZIOARTEKO EGUNA 2004” BURUZKO MOZIOA

Mikel Zubillaga Zinegotzi jaunak, Emakumeen Nazioarteko Eguna 2004 dela eta akta honi 1 eta 2 eranskin bezala doazen bi mozio irakurtzen ditu.

Udalbatzak aho batez erabakitzen du:

Lehenengo.- Anoetako Udalak, martxoaren 8aren oroitzapenean, bere berdintasunaren aldeko konpromezua berresten du eta bere babes eta elkartasuna erakusten die eguneroko lanaz gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak eta hauek sortzen dituen bidegabekeriak desagertzeko ahaleginak egiten dituzten gobernu zein gobernuz kanpoko erakunde eta giza mugimenduei, bide batez berdintasuna hitargo guziarentzako onura dela eta berau lortzea pertsona zein erakunde guziaren ahaleginaren beharrean dagoela.

Bigarren.-

El Concejal Mikel Zubillaga procede a dar lectura a las mociones presentadas con motivo del Día Internacional de las Mujeres 2004 cuyos textos se adjuntan como anexo 1 y 2 a la presente acta.

La Corporación acuerda por unanimidad de los reunidos:

Primero.- El Ayuntamiento de Anoeta en conmemoración del 8 de marzo, manifiesta su compromiso en pro de la igualdad y se suma a todas las actividades que con esta ocasión se realicen desde todos los organismos gubernamentales y no gubernamentales y principalmente desde los movimientos sociales de mujeres que con su trabajo diario contribuyen a que la desigualdad entre hombres y mujeres y la injusticia que provoca desaparezcan, recordando en este día que la igualdad es un beneficio para toda la ciudadanía y que su consecución necesita de la contribución de todas las personas e Instituciones.

Segundo.-

Anoetako udalak, ondorengoa aitortzen du:

1.- Guztiz beharrezkoa da zeharkakotasun printzipioa aplikatzea, generoaren perspektibatik, tokiko erakundeetako politika, programa eta zerbitzu guztietan.

2.- Beharrezkoa da modu aktiboan lan egitea, generoari buruzko eta, zehazki, emakumeek tokiko bizitza politikoan duten parte-hartzeari buruzko jarrera aldatzeko.

3.- Beharrezko da emakumeek tokiko politikan erabakiak hartzeko aukera erraztea.

4.- Derrigorrezkoa da denon ahaleginak bateratzea, Toki Administrazioko erabaki-organoetan dauden emakume eta gizonezkoen kopurua orekatzeko, parte-hartze politikoa berdintasunez bermatuz.

5.- Funtsezkoa da emakumeak tokian tokiko botereetara heltzea zailtzen eta galarazten duten oztopo guztiak ezabatzea.

## 6.- MANU AZKARATEREN ASKATASUNA ESKATZEKO ZENBAIT MOZIOA.

| | |
|---|---|
| Anoetako Ezker Abertzaleak aurkezturiko ondorengo mozioa ikusirik: | Vista la moción presentada por “Anoetako Ezker Abertzaleak” que dice como sigue: |

*“2004ko urtarrilaren 14an Manu Azkarate Tolosaldeko preso politiko ohia atxilotu zuten Martuteneko espetxean, gizarte laguntzailearengana ohiko hitzordura agertu zenean.*

*Jakina da, Manu Azkarate 1992an gaixotasun sendaezin eta kroniko bat duelako geratu zela baldintzapeko askatasunean orduko kode penaleko 60 artikulua eta egungo 92 artikuluaren babesean. Bere espetxealdiko azken garaietan denbora gehiago pasatzen zuen ospitalean presondegian baino, eta makina bat ebakuntza ere jasan izan behar izan ditu preso zegoela eta baldintzapeko askatasunean egonik ere. Bestalde, medikazio oso hertsia du eta beste edozein pertsonak baino zaintza handiagoa behar du elikadura aldetik ere.*

*Ondorioz, eta bere gaixotasunaren ezaugarriak kontuan izanik, kartzelaratzeak izan dezakeen eragina izugarria da, sor diezaiokeen kaltea itzulezina izan daitekeelarik.*

*Atxiloketa honekin, Estatu Espainiarrak Euskal Herria eta bere eskubideen alde lanean ari diren guztiak suntsitzeko hartu duen erabakia agerian utzi du beste behin ere.*

*Berriz ere, herri eta herritar gisa ditugun eskubide kolektibo eta indibidual guztien gainetik, indarraren arrazoia geratzen da agerian Estatuaren aldetik.*

*Manu kartzelaratzeko mahai gainean jarri dituzten aitzakiak, horixe, banan bana funtsik gabe erotzen diren aitzakiak besterik ez dira. Oso ondo dakite espetxe zaintzatik eman dituzten argudioak hutsalak direla, ez direla egia eta hori argitzeko frogak beraien eskuetan daudela.*

*Manu Azkarateri eta bere ingurukoei bizitzea tokatzen ari zaien une larri hauetan, osoko Udal Batzar honek, honako puntu hauek onartzen ditu:*

1. *Manu Azkarateren berehalako askatasuna exijitzen du Udal honek.*
2. *Atxiloketa honen ondorioz bizitzen ari diren une latz hauetan Udal honek, Manu Azkarate bera eta bere senitartekoei elkartasunik beroena adierazten die.*
3. *Udal honek ustez, Manuren atxiloketarekin herri hau eta bere herritarrek dituzten eskubideen aurrean estatu espainiarrak bere mespretxurik handiena utzi du agerian: gaixo sendaezin bat gezurrezko argudioekin kartzelan sartuaz, bere bizitzak duen arriskua axola gabe.*
4. *Udal honek, Manuren atxiloketaren aurrean hainbat alderdi eta komunikabideek duten jarrera salatu nahi dute, gertaeraren larritasuna isildu eta beste alde batera begiratzen dutelako.*
5. *Manu Azkarateren askatasuna exijitzeko elgarretaratze bat konbokatzen du Udal honek, eta helburu horrekin egingo diren gainontzeko mobilizazio guztietan parte hartzeko deia egiten die herritarrei”.*

| | |
|---|---|
| EAJ/PNV taldeak aurkezturiko ondorengo mozioa ikusirik: | Vista la moción presentada por “EAJ/PNV” que dice como sigue: |
| *“2004ko urtarrilaren 14an Manu Azkarate tolosar preso politiko ohia atxilotu zuten Martuteneko espetxean, ohiko hitzordura agertu zenean.* | *“El día 14 de enero de 2004 fue encarcelado el ex preso político tolosarra Manu Azkarate, tras acudir a su cita ordinaria al centro penitenciario de Martutene.* |
| *Guztiok dakigu Manu Azkarate 1993an gaixotasun sendaezin eta kroniko bat duelako geratu zela* | *Como es sabido, Manu Azkarate fue puesto en libertad condicional el año 1993, en aplicación del* |

*baldintzapeko askatasunean orduko kode penaleko 60 artikulua eta egungo 92 artikuluaren babesean. Bere espetxealdiko azken gaarietan denbora gehiago pasatzen zuen ospitalean presondegian baino eta makina bat ebakuntza ere jasan izan behar izan ditu preso zegoela eta baldintzapeko askatasunean zegoela ere. Bestalde medikazio oso hertsia duela ere jakina da eta beste edozein pertsonak baino zaintza handiago behar du elikadura aldetik ere.*
*Atxiloketa asko izaten dira mendeku kutsua hartzen dutenak baino Manuren kasua benetan muturrekoa da. Zergatik atxilotu dute? Hileko hitzordura agertu omen ez zelako, eta noiz atxilotu dute? Hurrengo hitzordura agertu denean. Kasu honetan mendekua ezkutatzen ere ez dira saiatu, argi eta garbi, nabarmen adierazi dute nahi dutenean edonor sar dezaketela kartzelara, nahiz eta gaixotasun sendaezin eta kroniko bat izan.*

*Ondorioz, Manu Azkarate gose, egarri eta medikazio greban sartu da. Bere gaixotasunaren ezaugarriak kontutan izanda neurri honek bere osasunean izan dezakeen eragina izugarria da eta sor diezaiokeen kaltea zenbateraino izan daitekeen itzulezina pentsatu ere ez dugu egin nahi.*

*Hori horrela izanik, Anoetako Udal Batzarrari ondorengo akordioa hartzea eskatzen diogu:*

1. *Espetxeetako Zuzendaritzari Manu Azkarate lehen bai lehen askatzea exijitzea.*
2. *Manu Azkarateren senitartekoei elkartasuna adieraztea une zail honetan*

3. *Beste hainbat egoeratan geratu den moduan, non bai gizarteak bai Udalak giza eskubideen aldeko mobilizazioetan parte hartu duen, kasu honetan ere Anoetako Udalak dei egitea parte hartzera datorren asteartean, hilak 20, iluntzeko 8etan isileko konzentrazioan. Ekitaldi hau Udaleko atarian izango da, Giza eskubideak guztietzat-Manu Askatu lemapean".*

Ondoren, Alkate jaunak EAJ/PNVren mozioa bozketara eramaten

*artículo 60 del Código Penal vigente en aquellas fechas (artículo 90 del vigente en la actualidad). En la época final de su estancia en prisión, pasó más tiempo en el hospital que en la propia carcel. Asimismo, ha sufrido multitud de intervenciones quirúrgicas tanto en prisión como posteriormente en libertad condicioanl. Por otra parte, está sometido a una fuerte medicación, y ha de cuidar de una forma estricta su alimentación.*

*Si bien muchas de las detenciones efectudas tienen un carácter evidente de venganza, en el caso de Manu es extremo. La razón de su encarcelamiento dicen que es su no comparecencia a la cita mensual. Y la detención se ha producido justo al acudir a la siguiente cita. En este caso ni siquiera se han esforzado en ocultar su carácter vengativo. Es más, han querido mostrar que cualquier persona puede ser encarcelada, aunque padezca una enfemedad crónica e incurable.*
*Ante estos hechos Manu Azkarate ha optado por la huelga de hambre, sed y medicación. Sin embargo, por las características de su enfermedad, no queremos ni pensar en las terribles consecuencias que esa actitud puede tener en su salud y en qué medida pueden ser irreversibles los daños que se le originen.*
*Por todo ello solicitamos al Pleno del Ayuntamiento de Anoeta que adopte los siguientes acuerdos:*

1. *Exigimos a la Dirección de Penitenciarias la inmediata puesta en liberdad de Manu Azkarate.*
2. *Expresar su solidaridad a la familia de Manu Azkarate en estos momentos tan difíciles.*
3. *Convocar (tal como ha sucedido en otras situaciones, en las que tanto la sociedad como el Ayuntamiento han participado en movilizaciones a favor de los derechos humanos), a participar en la concentración silenciosa del día 20 de enero, martes, a las 8 de la tarde, delante del Ayuntamiento, con el siguiente lema: Derechos humanos para todos-Manu Askatu".*

A continuación el Sr. Alcalde somete a votación la aprobación de la

du, partaideek aho batez ondorengoa onesten dutelarik:

Lehenengo.- Espetxeetako Zuzendaritzari Manu Azkarate lehen bai lehen askatzea exijitzea.

Bigarren.- Manu Azkarateren senitartekoei elkartasuna adieraztea une zail honetan.

moción presentada por EAJ/PNV y se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Primero.- Exigir a la Dirección de Penitenciarias la inmediata puesta en liberdad de Manu Azkarate.

Segundo.- Expresar su solidaridad a la familia de Manu Azkarate en estos momentos tan difíciles.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate-Lehendakari Jaunak bilera amaitutzat jotzen du iluntzeko zortzirak direnean, eta neuk Idazkariak ziurtatzen dudalarik.

Y sin más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde-Presidente da por finalizada la sesión a las veinte horas, lo que yo, la Secretario certifico.